

**Lehiaketak.** Lehen 3 postuak eskuratu zituztenak.**Sagardoa.** Herriko ekoizleek egindako edaria ere dastagai izan zen.**Perraketa.** Ikusmin handia sortu zuen erakustaldiak.

Babarruna eta sagardoa alkate

USURBIL

Atzo frontoian eta dema plazan ospatu zen Santo Tomas azokan gozatzeko aukera zabala izan zen

JOSE ARANBERRI

Sagardoa eta babarruna. Horiek izan ziren atzoko Santo Tomas azokako osagai nagusiak. Izan ere, Noa! Kultur Elkarrekin antolatutako ekimenen bi produktu hauen txapelketak egin izan dira azken urteetan eta aurtengo edizioan ere ekoizle ugari izan dira beraien babarrun eta sagardoak lehiara aurkeztu dituztenak.

Hala ere beste hainbat osagai ere izan zituen atzo goizean herriko frontoian eta dema plazan ospatu zen azokak. Herriko sagardo ekoizleek txapelketara aurkeztutako sagardoak probatzeko aukera izan zuten goiz osoan zehar. Horrez gain, txistorra pintxoak, taloak eta bestelako jakiak ere izan ziren herriko frontoian. Udarraren ikastolako ikasleek postreak, sagarrarekin eginda-

ko produktuak, eta gaztainak ere bai, urte sasoi honi dagokion eran.

Dema plazan, berriz, ikusmin handia sortu zuen beste erakustaldi batek. Hain zuzen ere, Asteasuko Olarreaga Goiko baserriko Joxe Aizpuru Bizkarre baserriko idi-pareak, perratzen ari zirela goizean zehar. Jende askorentzat inoiz ikusi gabeko lantegia izan zen agian.

Kantuak ere bere tartea izan zuen atzoko ekimenean. Zuberoko Sohuta herriko Eperra ikastolako laguntza egin zuten kantu jira. Izan ere, azken aste hauetan aurrera eman den Eperra ikastolaren aldeko elkartasun kanpainan jasotako 7.400 euroak irudikatzen zuen txakea jaso zuten.

Atzoko azokari amaiera emateko aurrez aiptutako bi txapelketen irabazleak ezagutzera eman ziren. Babarrun lehiaketan aurkeztutako 55 ekoizleren artean Aginagako Ibai-Ertz etxeko Manuel Aizpuruak lortu zuen txapela eta lehiara aurkeztu ziren 19 sagardo ekoizleen artean, epaimahaiak Joseba Zuloagaren sagardoari eman zion sagardo onenaren saria.

**Babarrunak.** Herriko 55 babarrun ekoizleek aurkeztutako babarrunek ikusmina sortu zuten beste behin ere.